



DSS2016.EU



## **ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak  
zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

---

### **2015-04-15, LEHEN SAIOREN MEMORIA**

#### BERTARATUTAKOAK:

- ***Ardorako partaideak:*** 13 hiritar, horietako 8 gizonezkoak eta 5 emakumezkoak.
- ***2016 proiektuko arduradunak:*** 2 partaide, Partaidetza zuzendaria den, Enara Garcia eta Energia Olatuak programaren arduraduna den Mikel Goñi.
- ***Aztiker Ikerguneko bideratzaileak:*** 2 partaide, Markel Ormazabal eta Susana Martinez.

#### **SAIOAREN HELBURUAK HONAKOAK IZAN DIRA:**

- ▶ ***Ardora Lan Taldeaz:*** Funtzioa, helburuak eta funtzionamendua erreparasatzea laburrean. Partaideen elkar ezagutza sustatzea
- ▶ ***Energia Olatuak ildoan,*** martxoan jasotako proiektu eskaerak aztertzea
- ▶ ***Martxoko 5 proiektuak hautatu***
- ▶ ***Balorazioa eta agurra***



## **ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

---

### **1. SARRERA (Aztiker)**

---

Aztikereko ordezkariak hitza hartu du, eta ARDORA lantaldearen zeregina eta ezaugarriak labur kokatu ditu. Segidan, eguneko saioaren helburuak kokatu ditu, eta horretarako erabiliko den lan eskema ere azaldu ditu.

Segidan, eta Ardora Lan taldearen partaideen elkar ezagutza lantze arren, dinamika bat garatuko da, bi borobilen bidezko bikoteak osatuz. Horrela, bi txanda ezberdinetan, bakoitza egon da lan taldeko 2 pertsonekin, honako edukiak konpartitzeko:

- Izena, eta bizilekua
- 2016rako bakoitzak duen ametsa pertsonala
- 2016rako bakoitzak duen amets gaizto pertsonala

Bakoitzak, egondako bi pertsonen esandakoa konpartitu du taldeko gainerakoekin. Besterik gabe, eguneko zereginari ekin zaio.

### **2. HIZKUNTZA IRIZPIDEEN GAINKO AZALPENA**

---

Hizkuntza irizpideen inguruan honako oharrek azpimarratu dira:

- Itzulpen sistema dago euskaratik gaztelerara. Hori dela eta, euskara ulertzen ez dutenei gonbidatu zaie aurikularrak hartzera.
- Azpimarratzen da, euskaraz egiten dutenek mikrofonoa hartu behar dutela.
- Gazteleraz egiten denean ez da itzuliko.
- Partaide bakoitzak nahi duen hizkuntzan hitz egin dezala, eroso sentituko den hizkuntzan.
- Ohar horiek esanda, lanera pasa da.

### **3. IRIZPIDEAK ERREPASATU**

---

Erreparasatu dira lanerako irizpideak aurreko saioan landutako zerrendaren arabera. Horrela, 2016 programa osoak dituen 7 irizpide horiek landu dira bost irizpideetan multzokatu direlarik zazpi horien esanahia.

#### **7 IRIZPIDEEN ESKEMAN**

- 1- Pertsonengatik eta pertsonentzat izan dadila. Herriko biztanleen guztien parte hartzea bilatzen duena. Bai pertsona autoktonoentzat eta bai munduko beste leku batetik etorritakoentzat.
- 2- Askatasun arduratsua bezalako balioak indar ditzala, giza duintasuna eta elkarrekiko ulermena indar ditzala; batez ere, gazteei zuzendutako ekimen artistikoen bitartez.

#### **LANERAKO ERABILIKO DUGUN 5 IRIZPIDEEN ESKEMAN**

- 1- PARTE HARTZEA
- 2- ANIZTASUNA
- 3- IDENTITATE EUROPEARRA LOAKALAREN OINARRIAK
- 4- PROZESUA
- 5- LEGATUA

## ARDORA LAN TALDEA:


*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

- 3- Loturazko identitate europarra eraikitzen lagun dezala, lokalean oinarrituta.
- 4- Bitartekotza artistikoaren garrantzia errebendika dezala, eta bere prozesu sortzailea argitara dezala. Herritarretako parte-hartze aktiboa horrela bultzatuz.
- 5- Epe jakin batean iraunkorki eragingo duen ezaugarri edo osagaiak dituen ekimenak sustatzea.
- 6- Ezaguera eta talde onura bultza ditzala eta, pentsamendu aldaketetan kolaborazioko eta gaitzeko forma berriak susta ditzala.
- 7- Aniztasun linguistiko eta kulturalaren jasangarritasuna bermatzeko forma berriak bila ditzala

Birgogoratzen da, bost horietako irizpide bakoitza azalduta dagoela e-postaz bidalitako dokumentuan. Horrez gain, azalpenen fotokopiak ekarri direla esan da, eta behar duenak eskura dezakeela dokumentua.

## 4. ERABAKITZE SAIOA

Aurreko saioan esan bezala, hiru urratsetan egin da dinamika, honela:



Jarrian azaltzen dena izan da landutako urratsak zehazki azaltzen dituen kuadroa:

**ARDORA LAN TALDEA:**

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

PROIEKTU KODEA	0	2	5	12	13	14	15	16	17	18	19	21	22	26	27	28	29	30	31
EMANDAKO IZENA	Musika CD	Barrobusa	St. Klara	Kantauriko Itsas Argia	Acircate	Errekorrido Arkitektonikoa	Soneto	Identitate Hizkuntza	Faro Energia Reljiosa	Urpeko Arkeologia	Hysteron	Manopolis	Piano	Zine mitologikoa	Su Artifizial Erakusketak	Su Artifizial Liburua	Su Artifizial Erakusketak	Guia para perdense	
Balorazioa kualitatiboa																			
PARTE HARTZEA	6		0	9	9	9	1	-4	-9	4	9	-3	8	-3	-2	-8	-4	7	-3
IDENTITATE EUROPEARRA SUSTATU LOKALEAN OINARRITUTA	9		-1	10	1	6	0	-3	-8	1	1	-2	4	1	-6	-7	-6	-1	-3
KULTURAREN ULERKERA ZABALA	6		2	6	-5	6	5	-7	-8	5	0	-7	-3	3	0	-5	-5	3	-3
PROZESUA	4		4	1	1	8	-2	1	-10	4	7	4	6	0	-1	-2	-4	2	-1
ANIZTASUNA	3		9	3	-3	3	0	0	-10	7	5	0	4	2	3	1	-4	8	-1
	28	24	14	29	3	32	4	-13	-44	21	22	-8	19	3	-6	-21	-23	19	-11

**EMAITZA: 5 proiektuak**Eginiko hausnarketa eta talde lanaren ondorioz, hauek dira **2015eko martxoko deialdian** esleiturik atera diren bost proiektuak:

- ✓ **IBILBIDE ARKITEKTONIKOA (14. Kodea)**
- ✓ **MUSIKA ANITZA CDa (0. Kodea)**
- ✓ **BARROBUSA (2. Kodea)**
- ✓ **IBILBIDEAN GALTZEKO GIDA (30. Kodea)**
- ✓ **HYSTERON (19. Kodea)**



## ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

---

## 5. BALORAZIOA:




---


a. [Norbanakoak galdetegia bete du:](#)

Aurrekoan esan bezala, saio bakoitzeko, bakoitzak beteko du galdetegia, pertsonalki baloratzeko, eta hainbat aldagaien bilakaera antzeman ahal izateko.

b. [Talde balorazioa egingo da itsas argien bidez](#)

Talde balorazioari dagokionez, itsas argiak koloretakoak banatu dira partaideen artean. Horien bidez, sinbolikoki hiru koloretako irudiak aurkeztu dira, bakoitzari balorazio bat atxiki zaiolarik:

	Saioa ez zait batera gustatu, ez dut ikasi, ez informazioa jaso. Metodologia ere ez zait oso egokia iruditu. Orokorrean sentsazio ezkorra dut.
	Besterik gabeko saioa izan da, informazioa jaso dut baina zalantza askorekin. Gehiegi ez dut ikasi eta metodologia besterik gabekoa izan da. Orokorrean sentsazio epela dut.
	Saioa egokia izan da, ikasi dut eta informazioa jaso dut. Metodologia egokia izan da eta sentsazio onarekin noa.

Hiru kategori horien arabera eskatu zaie partaideei posizionatzea. **Guztiak** hautatu dute **itsas argi berdea** =  eta horretarako honako balorazio solteak aipatu dituzte:

- ✓ Bilera ongi egon da, eta emaitzak atera dira. Helburua bete da.
- ✓ Bilera oso ongi antolatuta eta argia izan da. Lana gustura egin dut.
- ✓ Giroa oso lasaia eta konfiantzazkoa izan da.
- ✓ Ariketarekin ados egonda ere, hurrengorako egokiagoa litzateke koadroaren emaitzak argiago izatea, dena pilaturik, eta ez da bereizi gailendu direnak zeintzuk ziren...Hurrengorako, azken urratsak garbiago adieraztea eta ikustaraztea lagungarria izango da. Agian paper zurian, edo agian argi gehiago jarrita...
- ✓ Ados aurreko interbentzioarekin, azken balorazioekin eramaten utzi gara, baina bastante "liosoa" zen dokumentua, eta argi ikusi ez zeintzuk ziren emaitza gailenduak. Hurrengorako urrats horiek kontzienteago egiteko saiakera ongi legoke.

## 6. AGURRA ETA HURRENGO URRATSEN ERREPASOA

---

### AGURRA:

Besterik gabe, hurrengo saioa maiatzaren 15ean izango dela adierazita, saioa amaitutzat eman da iluntzeko 21'10etan.

**Donostian, 2015eko apirilaren 15ean.**